

«*Intxaur azal baten barruan*» eta «*Eguberri amarauna*», Puerto de Santa María-tik.

Hori da azalean soil soilik dakarrena liburu honek. Egilea edo egileek bururik agertzen ez badute ere *Izuen gordelekuetan barrena* burutu zuenaren eskua ikusten da bertan. Denboraren neurria galdurik edo, ezin dezakegu ziurtatu zein urtetan idatzia den, baina 1983ko urtarrilaren 12koa du Aintzin so-lasa.

Bi zatitan dator, lehena hitz-laxoz eta bigarrena bertso li-brez, eta hala ere obra guzia zehar poesia nabari da.

Lehen partea, hitz-laxozkoa, sekuentziaz osatzen da: gogo-etazko bakarrizketatik zeldatik zeldarako elkarriketak eta,

tarteka, eskuetan duen liburu bakarra mintzatuko da, Shakes-peare-ren *Hamlet*, bertako pertsonaiak solas partaide direla. Presondegiko giroa dakar, abertzale iraultzale batzuen ingu-ruan. Libertaterik eza, berez oinazekoa bada ere, han funtzio-nariak presoei egiten dien gudu psikologikoa ez da hobe-a. Hortaz datoz liburuaren lehen orrialdeak, irakurketa izugarria eskainiz: «Akidura eta tristura sentitzen duzu, ea oraingoan nor dakarten zain. Akidura, tristura eta gorrotoa sentitzen du-zu. Mindurik duzu gorputza eta, gainbizitzeko baino ez balitz ere, burrukan segitzeko beharraz pentsatzen duzu. Istiluetan ez sartzeko, amonak hainbeste aldiz esandako hura, farrega-rria egiten zaizu orain. Aurrekoak erori direneko zulora ez sartu zangoa, esaten zion, eta zuk, amona eta atsotitzak maite arren, zeurea egin, zangoa aurreko guziak erori direneko zulora sartu alegia; non zauden baleki. Eta, hala ere, burrukan segi-tzeko eta gainbizitzeko beharra...»

Ez da hau Ivan Denisovich-en bizitzako egun bat, ez. Zeren haizea bera mugatuago duenez eta papera debekaturik, idazle-aren ahalmenak zentzunez baino mugatuagoak daude mate-rialezko ukapenera. Horregatik, ezinera beharturik ere, pen-tsamena lanean berekikoetan. Indarrez ukatuko da ekintza, baina ideak hor jarraituko dute gizonaren baitan.

Irakurgai gogorra da, baina, hala ere, irakurgarri euskaldun batentzat, eta ezagutu beharrezkoa norpere herriagatik sufri-tzen duten anaien oihua: «gudatzen bagaituzte ez da oker ga-biltzalako ez eta gaiztoak garelako, garelako baizik».

Handik irtetzeko ametsa, gauzarik opagarriena: «—Amets onak? Nik ihes egiten diat beti, ametsetan, eta beti harrapa-tzen niautek askatasuna ukitu orduko.»

Bigarren partean, metaforaz eta kontraesanez. Poesia ab-surdo horietakoa dirudi, ez itxura hutsez, baina egi garratza da:

*esaidazu poema hau
laket zaizun
ezen lan eskerga da ezer ezerako.*

Ez da izanen eskerga, ez ezer eza ere, baina ez zait laket. Laket ez zaidanez ezer sufrigarri, batez ere anaigandikorik.

Poeta egileak dionez, bere aitorenpenetan: «poema luze hau ez da ona agian», baina gauza berriak esaten ditu, Bordelek Donostiako gaztelutik eta Etxahunek galeretatik esan ez bezalakoak eta beste batzu geroago adierazi ez dituztenak. Ez dakit aski den, baina ez da gutti.

*inorekin mintzatzea debekaturik dago
ene buruarekin mintzatuko naiz soilik
baina isiltzeko agindu didate.*

*kantatzea ere debekaturik dago
baina ez dakite
poemak izkiriartzen ditugunik.*

Baina, zelda hotzetik ezin ezer berorik atera, alperrik naturaren indarrak deitu:

*izarrak suzkoak omen dira
baina ez naute berotuko*

Minezko kantak bihotzaren zartadarako.

Otsalar